

Aberri Eguna eta "independentzia"

Argia.

Lehen *askatasuna* esaten genuen: orain badirudi *independentzia*-rekin zerbait gehiago adierazi nahi dugula; alegia; gure nazioak, *Estatu* batek bezalako agintea, eta, bide batez, beste Estatuengandik ezagutza politiko osoa izateko *eskubidea* eta *ahalmena*.

Ni beti izan naiz independentzi honen aldekoa.

Eskubide osoa baitugu hontarako.

Sabinek erakutsi zidan hau: bai etxean mutiko nintzen ezkerero hala entzun-ikasi nuelako, eta baita gero neronek irakurriz, gainontzekoa "vascongadismo" hutsa zela ulertu nuelako.

Aberria, niretzat, regionalismo hortaz beste zerbait baita.

Abertzale eta independentzizale gauza bera dela esatearekin mugatua geratzen da hura.

Baina, kasu, ez dut oraindik dena esan; esandakoa osatzeko aitortu behar dut, orain dela ehun urte esandakoak, nahiz eta Sabin berak esanak izan, ezin direla gizaldi batek nabarmentzen dituen aldi eta aldeak gaurkotzeko zuzenketak egin gabe hartu.

Nahiz eta garai hartako Sabinen izpirituarekin bat banator ere.

Aldi bakoitzak bere errealitatea bizi duen bezala, bada hemen beste bihurtura edo distorsio bat: eta hau Agirre Lehendakariak, eta berez izan zituen esperientziaz ari zen!, erakutsi zidana: gauz bat dela teoriak egitazko goi jo-mugaz jardutea, eta beste bat teori hau aplikatzerakoan bidean sortzen direnak aztertu ondoren *nola* joka erabakitzea.

Kontuan eduki behar Sabinek berak izan zituen kezka.

Herriaren aurrean erresponsabilitate hau hartzea gauza astuna baita!

Batez ere soziologiaz eta politikaz ari garenean.

Hara ba, hemen, eta agindu bezala laburki, zergatik independentziaren aldeko jo-muga baten eragina asumitzen dudan osoki, eta nola, bestalde, gure herriaren jokabide demokratikoak noiz-nolakoak izan behar duenaren erresponsabilitateaz jabetzen naizen.

Eta, hau ere, *ahalmenak* mugatzen duen hau, nola asumitzen dutan.